

ERRIA MENPERATUTA BE, ERRI

Salomon' en ostean bere erria menperatu egin eben, erbusteratu be bai. Makabeo'tarren aldian burua jaso eban., baiña barriro menperatu eben. Kristo etorri zanean be erromatarren menpean egoan. Eta arrezkero munduan zabal bizi izan dira judatarrak, geienetan aurrean erabiliak, nazitarren olokaustoa egoera orren ezaugarri barria dala.

Azkenean, XX gizaldiaren erdi-inguruan sortu zan Israel Erreinu eta gaur be or diardu erreinu ori toki ego-kian finkatzen.

Baiña erria menperatuta izan arren, ez dau inoiz galdu bere nortasuna. Erria izateko ez da bearrezkoa buru-jabetza osoa.

Orain begiratu dagigun Euskalerrira.

Euskalerrria inoiz agintaritzat bakar bat euki ez dauan anfiktionia bat dogu. Egia da III Santxo'k bere esku euki ebala Euskalerrri osoa, baiña ez erri bat lez, askoz zabala-goia zan bere erreinuaren zati lez baiño.

Euskaldunak, ez zatika eta ez batuta, inoiz ez gara izan erreinu edo erri bat, beti beste batzuren menpean bizi izan gara.

Nortzuk diran gure agintari nagusiak?

Esan dagiguzan izen batzuk: Erromatarrak zati bat, frankoak zati bat, bizigodoak zati bat, akitaniar beti erdi-euskaldunak beste zati bat, Asturias'eko erreinu Bizkaia... eta aspaldion jabe oso arroak diran Frantze ta España.

Baiña egoera guzti orreitan, euskaldunak asi Lurrarte edo Mediterraneo itxasoan eta Asturias'era arte, asi landetan eta Zaragoza'ra arte, lurralde orreik euskaldun izan diranean, jakin dabe euskaldunak dirala eta maite izan dabe, anfiktionia lez, erria.

Lurraren zabalkera guzti ori gizaldirik gizaldira urritzen joan da. Guri jazo jakuna eta Ameriketara bizi diran inditarrak jazo jakena, antzekoa izan da. Inditarrak baztertu egin dabez eta euren "erreserbatara" sartu. Euskaldunak gaurko lurralde txiki onetara baztertu gaitue baiña guk jakin dogu burua jasoten. Era askotara izan gara menperatuak, alboratuak, zapalduak..., baiña menpean egon arren, erria gara eta "erri" edo "aberri" sentitzen gara.

"Gora Euzkadi askatuta" oiukatzen dogunean agertzen dogu gure gurari ori.

Egia da gure artean asko dirala kanpotik etorriak edo bertokoak izanik kanpotarren burubideak onartu dabezenak, baiña bere burua euskaldun sentitzen ez dauna, Euskalerrria erri lez onartzen ez dauana, ez dago euskaldunen taldean, gure artean diran kolonietarikoren baten dagoz.

Erria il nai dabenak, eta asko dira ori argi esan ez arren, enda-iltzailleak edo "jenozidak" dira: Euskalerrria menperatuta ba'dago be, erria da.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeï euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!